

EGOERAREN AZTERKETA

140. zenbakia | 2021eko apirila

EGOERA SOZIAL ETA EKONOMIKOAREN AZTERKETA

2020an suntsitutako
enpleguaren % 95
aldi baterakoa izan da

ZAINDUZ, BIZI

ELA
EUSKAL SINDIKATUA




MANU ROBLES-ARANGIZ
FUNDAZIOA


os a quienes nos

EGOERAREN AZTERKETA HONETAKO PUNTAKO GAIAK


Enpleguaren portaera jardueraren arabera
2020an




Enpleguaren portaera kontratu motaren arabera
2020an




Behin-behinekotasun tasa Europar Batasunean (%)



Langabezia-tasa Nafarroan eta EAEn sexuaren arabera
2020an



Gaspe langabeen bilakaera EAEn eta Nafarroan



EDUKIA

1. Gizarte Segurantzza 4

- a) Aktibitatea 4
- b) Kontratu mota 4
- c) Adina 4

2. Biztanleria Aktiboaren Inkesta 5

- #### 2.1. Okupazioa 5
- a) Orokorra 5
 - b) Lanaldi osoa/partziala 5
 - c) Kontratu mugagabeak/tenporalak 6

2.2. Langabezia 7

- a) Orokorra 7
- b) Gazteak 7

3. ERTEak eta Enplegu Erregulazio Espedienteak 8

PUNTAKO GAIA: Europako funtsak Hego Euskal Herrian 10

ERABILITAKO SIGLAK

HEH	Hego Euskal Herria
EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa
EB	Europar Batasuna
BPG	Barne-produktu gordinaren
SEPE	Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa
ERTE	Expediente de regulación temporal de empleo
ERE	Expediente de regulación de empleo
INE	Estatistikako Institutu Nazionala
NGEU	Next Generation European Union
BEZ	Balio Erantsiaren gaineko Zerga
CEOE	Confederación Española de Organizaciones Empresariales
PERTE	Proyectos Estratégicos para la Recuperación y Transformación Económica
AHT	Abiadura Handiko Trena
EJ	Eusko Jaurlaritza

EGOERAREN AZTERKETA

SARRERA

Adierazle ekonomikoek agortze seinaleak ematen ari ziren pandemia gure bizitzetan agertu baino lehen. Martxoko krisi ekonomikoa hasi aurretik, ziklo amaiera zegoela ohartarazi genuen, horren adierazle zen herrialde aurreratuenetan etengabea izaten hasi zen dezelerazioa; are gehiago, Italian edo Alemanian atzeraldia sumatzen hasia zen. Baina ez zen seinale bakarra, inflazioa zerora hurbiltzen ari zen, ekoizpena gelditzen hasia zen, nazioarteko merkataritza murrizten ari zen, etab.

Berandu baino lehen, krisi ekonomikoa iritsiko zen, pandemiak prozesu hori bizkortu baino ez zuen egin. Kapital handiak eta enpresa handiek krisiaren ondorioz sortutako testuingurua aprobeztatu dute beren inbertsioak eta ekoizpena berrantolatzeko. Etekinak handitzeko asmoz, berregituraketak egiten hasi dira, besteak beste, digitalizazioa, robotizazioa eta automatizazioa bultzatuz. Berregituratze horren helburua kapital aldagarria murriztea da kostuak aurrezteko; horrela, langile-klasea ekoizpen-katetik kanporatzen dute.

Datuek erakusten dute enpleguaren berregituraketa hori badagoela. Industriak, EAEko eta, hein txikiagoan, Nafarroako motor ekonomikoa denak, enplegua suntsitzen du, lehen beharrezkoa zuen eskulana gaur egungo testuinguruan behar ez duelako. Gainera, fenomeno hau ez da berria; izan ere, duela hamarkada batzuk gertatzen ari den prozesua da, baita ere enpresen etengabeko deslokalizazioaren ondorioengatik. Horrela, bigarren sektorearen pisua murrizten ari da. Hirugarren sektorea, ordea, izugarri handitzen ari da, prekarizazioak eta enplegu egonkorra edota baldintza onak izateko aukera ezak gora egiten duen era berean.

Txosten honetan, 2020an enpleguan gertatutakoaren balantzea egingo da. Biztanleria Aktiboaren Inkestak emandako datuei erreparatzeaz gain, Gizarte Segurantzak afiliazioari buruz emandako datuetan sakonduko dugu. Azkenik, Europako funtsen behin betiko erregelamenduaren balorazioa egingo da. Horrekin batera funts horiek EAEn eta Nafarroan nola kudeatuko diren aztertuko da.

* Txosten hau 2021eko otsailaren 18an eguneraturiko informazioarekin burutua izan da

Manu Robles-Arangiz Institutua
@mrfundazioa
www.mrfundazioa.eus
Bilbo. Abril de 2021

1.

Gizarte Segurantzza


Gizarte Segurantzak organismo honetan afiliatuta dauden pertsonak neurtzen ditu. Datuek erakusten dutenez, 2020an 24.212 enplegu suntsitu ziren (-%1,9) Hego Euskal Herrian. Lurreldeka, 2020an 2.752 afiliatu gutxiago izan ziren Nafarroan, hau da, %0,95 gutxiago. EAEn, sunsipena handiagoa izan zen, bai kopuruari dagokionez (21.460), bai ehunekoari dagokionez (-%2,2). Afiliazioaren jaitiera hori gehiago sentitu zen Erregimen Orokorreko afiliatuen artean Autonomoen Erregimeneko afiliatuen artean baino, soldatapeko pertsonen afiliazioa %2,2 jaitzi zen bitartean, autonomoena %0,6 soilik murriztu zen.

a) Aktibitatea

Jarduera kaltetuena, zalantzarik gabe eta espero bezala, ostalaritza izan zen, 10.000 enplegu baino gehiago suntsitu ziren azpisektore honetan (-% 11,8), arte-, jolas- eta entretenimendu-jarduerak ere ondorio latzak izan zituen 2.378 landun gutxiagorekin (-% 10,1); manufaktura-industriak 7.000 enplegu baino gehiago galdu zituen. Gainera, zifra horri etorri daitezkeen kaleratzeak gehitu behar zaizkio; izan ere, ERTEi esker enplegu-suntsiketari hori moteldu egin da, baina hauek amaitzen direnean, enpleguaren beherakada areagotuko duen agertoki bat ikus dezakegu. Sektore kaltetuenei zuzeneko laguntzarik ez emateak honako egoera ekarri du. Etorkizuneko egoera koronabirusaren bilakaerak eta txertaketak baldintzatuta egongo da.

Bestalde, osasun-jarduerak eta gizarte-zerbitzuek 4.495 enplegu sortu zituzten, horrek esan nahi du % 3,3ko igoera izan zuela. Hezkuntzako enpleguaren zifrak urte hasierako berberak izan ziren.

Enpleguaren portaera jardueraren arabera 2020an




Iturria: Gizarte Segurantzza

b) Kontratu mota

Hurrengo grafikoak ELAk duela urte askotatik salatzen duena berresten du, lan partzial eta tenporalen figura ezegonkortasunaren seinale direla eta krisi garaietan hauek direla kaltetuenak. Datuek hala baieztatzen dute. Behin-behineko kontratuak zituztenak izan ziren lehenengo kaleratuak. Horri partzialtasunaren elementua gehitu behar zaio, behin-behinekoen egoera okertu egin baitzuen elementu honek, baina baita ere kontratu mugagabeak zituztenena. Lanaldi osoko kotizatzaile mugagabeek gora egin zuten bitartean, neurri handi batean ERTEi esker; aldi baterako langileek ia 23.000 kotizatzaile galdu zituzten. Enpleguaren sunsipenak eragin handiena lanaldi partzialeko aldi baterako langileengan izan zuen: 15.602 izan ziren, hau da, %14ko jaitiera pairatu zuten.

Enpleguaren portaera kontratu motaren arabera 2020an



Iturria: Gizarte Segurantzza


c) Adina

Aldi baterako enpleguetan gazteenak dihardute gehien bat, eta enplegu-suntsiketaren kaltetu handienak, hain zuzen ere, adin-tarte txikienekoak izan dira. Hurrengo grafikoan ikus dezakegu adinaren elementuak funtsezko papera duela afiliazioaren portaeran. 44 urtetik beherako pertsonen artean enplegua suntsitu zen.

Termino erlatiboetan eragin gehien jasan zutenak adin-tarte txikienekoak izan ziren, %38,2ko murrizketarekin; ondoren, 20 eta 24 urte artekoak, %9,5ekin; hurrengo tarteetan, berriz, %3,5 eta %6,3 artean suntsitu zen.

Hori ez da kasualitatea, kapital handiak kapitala pilatzen jarraitzeko behar duen berregituraketa da. Ondorioz, gero eta alde handiagoak daude enplegu mugagabea dutenen artean, batez ere adin handiagoa dutenen artean, eta biztanleria prekarizatuenaren artean, batez ere kapitala balioztatzeko gero eta beharrezkotasun txikiagoa duten gazteen artean.

Afilazioaren portaera adinaren arabera 2020an



Iturria: Gizarte Segurantzza

2.

Biztanleria Aktiboaren Inkesta

INEk argitaratutako laugarren hiru hilabetezko Biztanleria Aktiboaren Inkestak 2020. urtean gertatu denaren argazkia ematen du. Datu hauekin aurreko urteekin alderaketa egin eta pandemiaren ondorioen argazki osoa izango dugu.

2.1. Okupazioa


a) Orokorra

Sei urtez jarraian gora egin ondoren, koronabirusak enpleguaren sorrera eten zuen. Biztanleria Aktiboaren Inkestaren arabera, 22.500 lanpostu suntsitu ziren Hego Euskal Herrian, horietatik 9.300 Nafarroan eta 13.200 EAEn. Zifra horiek ez datoz bat errealitatearekin; izan ere, aurreko atalean adierazi den bezala, enplegu-

murrizketa zeharo moteldu zuten enplegu-erregulazioko espedienteek.

Enpleguaren suntsiketak 11.900 emakumeri eta 10.600 gizoni eragin zien; beraz, 2020an honela geratu zen sexuaren arabera okupazioaren kopuru totala: 626.300 gizon enplegudun eta 572.200 emakume enplegatu. Aldeak, beraz, oso handia izaten jarraitzen du, nahiz eta emakume gehiago dauden lan egiteko adinean.

Okupazioaren aldakuntzaren bilakaera



Iturria: INE

b) Lanaldi osoa /partziala

Adierazi den bezala, 2020an enpleguak behera egin zuen lanaldi partzialeko enplegua zuten pertsonetan. Biztanleria Aktiboko Inkestaren datuek, hurrengo grafikoetan ikus daitezkeen bezala, joera hori berresten dute. Datu horiekin ondorio hauek atera ditzakegu.


Lehenik eta behin, lanaldi osoko langileek beren lanpostuei eutsi zieten ikusten dugu, eta lanaldi partzialeko langileek, berriz, 23.000 lanpostu galdu zituztela. Horietatik 12.800 emakumeak dira. Bitxia da 2008an guztiz kontrakoa gertatu zela, lanaldi osoko kontratuek behera egin zuten eta kontratu partzialek gorakada txiki bat izan zuten. 2012. urtean joera hori sakondu zen: lanaldi osoko kontratuak nabarmen murriztu ziren lan-erreformaren ondorioz, enpresaburuei errazago kaleratzeko aukera eman baitzuten lan erreformak.

Bigarrenik, adierazi behar da lanaldi partzialeko kontratuen arteko aldea nabarmena dela gizonen eta emakumeen artean. 2020ko datuen arabera, gizonen %5,8k soilik izan zuten lanaldi partzialeko kontratua, eta lau emakumetik batek (%26) izan zuten mota horretako kontratu bat. Zifra horiek erakusten dute emakumeek eman behar dutela denbora gehiago zaintza-lanetan. Emakumeen lanaldi partziala luzatuz lanaldia murriztea, neurri handi batean era ez boluntarioan, funtsezko

tresna da sistema ekonomikoa zainketa-lanekin bateragarri egiteko.


Azkenik, interesgarria da azken urteetako bilakaera aztertzea; horrek adierazten du, 2008. urtearekin alderatuta, emakumeek ez zutela hobera egin lanaldi osoari dagokionez. Gizonek, aldiz, kontratu okerragoak izan zituzten, eta 2020an lanaldi osoko 100.000 langile gutxiago zeuden. Gauza bera gertatu da lanaldi partzialarekin: emakumeen egoera berdina izan zen 2020. urtearen amaieran, ordea, gizon gehiagok izan zuten mota horretako kontratu bat.

Lanaldi osoko kontratuak (milakotan)



Iturria: INE

Lanaldi partzialeko kontratuak (milakotan)




Iturria: INE

c) Kontratu mugagabeak/temporalak

Aldi baterako kontratuen tasa % 23,2koa izan zen Hego Euskal Herrian, % 25,3koa Nafarroan, eta % 22,6koa EAEn. Tasa horrek eragin handiagoa du emakumeengan; Nafarroan, kontratuen ia herena (% 31,1) izan zen behin-behinekoa, eta EAEn, berriz, % 26. Gizonen artean, Nafarroan ehuneko hori % 19,8ra jaitsi zen eta % 19,2ra EAEn. Hortaz, emakumeak behin behinekotasuna

nabarmen gehiago jasaten dute, eta horrek dituen eragin okerrak pairatzen dituzte.

Tenporalitate-tasa Nafarroan eta EAEn sexuaren arabera 2020an




Iturria: INE

SEPEko datuek berresten dute 2020an egindako kontratuek ez dutela arazoa konpontzen, okertu baizik. 2020an zehar 1.008.385 kontratu sinatu ziren HEHn, eta horietatik 78.730 soilik izan ziren mugagabeak. Horrek esan nahi du egindako kontratuen %7,8 soilik izan zirela mugagabeak.

Behin-behinekotasunak ziurgabetasuna sortzen du, eta lan-kontratuetan dagoen prekarietatearen sintoma da. Hego Euskal Herrian Europar Batasunean baino askoz ere maila altuagoan erabiltzen dira. Erabilera ez da enpresa pribatuetara mugatzen; aitzitik, EAEko Administrazioari behin-behinekotasun tasa %40tik gorakoa da, Europako altuena, eta ia bikoiztu egiten du sektore pribatuak duena. Europar Batasunak ere presio egin dio Estatuari administrazioaren behin-behinekotasuna murrizteko, eta hori ere EAEko eta Nafarroako administrazioei dagokie. Horrela, EBk 62.000 bitarteko langile erregularizatzea eskatzen du; ildo horretan kokatzen da ELAk Eusko Legebiltzarrari eta Nafarroako Parlamentuari egindako proposamena, zeinak aldi baterako 65.000 langile publiko baino gehiago finkatzeko eskakizuna plazaratzen zuen. Baina gobernuak alderdiek atzera bota zuten eskaera hori, austeritate politika mantenduz.

Behin-behinekotasun tasa Europar Batasunean (%)




Iturria: INE, Eurostat

2.2. Langabezia

a) Orokorra

Langabeziaren bilakaera enpleguaren bilakaeraren alderantzizkoa izan zen. 2020an 16.700 langabe gehiago zeuden, eta 138.500 pertsona zeuden langabezian. Pandemiaren hasieran, iragarpenek langabeziak nabarmen gora egingo zuela iragartzen zuten arren, 2020ko saldoak 2008koa baino igoera txikiagoa utzi du. Hala ere, gogora dezagun, neurri handi batean, ERTEei esker izan dela.

Langabeen aldakuntzaren bilakaera HEHn




Iturria: INE

Langabeziaren igoera emakumeen kontura izan zen neurri handi batean. 5.200 gizon langabe gehiago daude eta emakumeen artean, berriz, bikoitza baino gehiago (11.400). Beste behin ere, emakumeak dira gehien sufritzen dutenak ekonomiaren uzkuertze-aldietan. Hala, Biztanleria Aktiboaren Inkestaren arabera, langabezia-tasa %11,65ekoa kokatu zen Nafarroan eta %9,96koa EAEn. Tasa hori handiagoa izan zen emakumeen artean bi lurraldeetan. Nafarroan %11,34 %12ren aurrean, eta EAEn aldea ia hiru puntukoa izan zen, %8,64koa gizonengan eta %11,35ekoa emakumeengan.

Adierazi behar da bilakaera ez dagoela soilik lanpostuen sorreraren edo suntsipenaren mende, baita biztanleria aktiboaren mende ere, zeinak 2020an zehar 5.300 pertsona galdu zituen. Gainera 10.600 pertsona ez-aktibo gehiago zenbatu ziren.

Langabezia-tasa Nafarroan eta EAEn sexuaren arabera 2020an




Iturria: INE

b) Gazteak

Biztanleria Aktiboaren Inkestaren datuen arabera, 25 urtetik beherako gazteak izan ziren egoera

ekonomikorengatik kaltetuenak: 5.400 langabe gehiago utzi zituen 2020 urteak eta honela 22.000 langabe izatera iritsi ziren. Azken bi urteetako egoera oso bestelakoa izan da bi lurraldeetan. 2019aren aurreko urteetan, langabezia-tasaren dinamika oso antzekoa zen. 2019an EAEn, langabeziaren igoera txiki bat egon zen, 2020an, aldiz, tasa 10 puntu igo zen, %25,7tik %35,8ra, hain zuzen. Nafarroan, ordea, 2019 urtean gazte langabezia-tasak murrizten jarraitu zuen eta 2020an tasa zertxobait igo zen, baina EAerekin alderatuta askoz gutxiago. Horrela, EAeko ehunekoa Nafarroakoa baino askoz handiagoa da, eta Europar Batasuneko altuena, Espainiako Estatuarekin batera.

Gazte langabeen bilakaera EAEn eta Nafarroan



Iturria: INE

3.

ERTEak eta Enplegu Erregulazio Espedienteak


Txostenean zehar, enplegu-suntsiketa handiagorik egon ez dadin enplegu-erregulazioko espedienteek izan duten garrantzia azpimarratu da. Horregatik, beharrezkoa da tresna hori aztertzea, zenbat pertsonari eragin dien eta bilakaera zein izan den ikusteko. Lehen aipatu bezala, ERTEetan sartutako pertsonak estatistikan okupatutzat hartzen dira. Estatistikako Institutu Nazionalak Eurostatek enplegu-erregulazioko espedienteen kasurako ezarritako zehaztapenak hartzen ditu oinarri, eta honako azalpen hau ematen du: "Enplegu-etenaldiak landun gisa sailkatzen dira lanpostura itzultzeko bermea

dagoenean, etenaldia amaitu ondoren". Horrek esan nahi du enplegu-erregulazioko espedienteeko pertsona guztiek berriro lan egin beharko luketela horiek amaitu ondoren.

EAEko Lan Harremanen Kontseiluaren arabera, 31.554 espedienteek 216.837 pertsonari eragin zien 2020an, eta horietatik gehienak ezinbestekoak (fuerza mayor) izan ziren (28.253). Horrek esan nahi du EAeko lau pertsona landunetik ia bati eragin ziola euste-mekanismo horrek.

Enplegu-erregulazioko espedienteak eragindako langileen bilakaerari erreparatu gero, apirilean eta maiatzean neurri handi batean erabili zirela ikus dezakegu, altuena apirilean eman zen, 200.000 inguru aplikatu baitziren. Ondoren, deseskaladarekin, jarduera ekonomikoa itzultzearekin eta oporraldiarekin, urriarte gutxitzen joan ziren enplegu-erregulazioko espedienteak. Hala ere, azaroan, COVID-19aren bigarren olatuarekin batera, ERTEak berriro egin zuten gora, baina konfinamendu-hilabeteetan baino askoz gutxiago. 2020. urtearen amaieran 53.084 pertsona zeuden aldi baterako espediente batean sartuta Hego Euskal Herrian.

ERTEen bilakaera HEHn



Iturria: Inklusio, Gizarte Segurantza eta Migrazioa Ministerioa

Lanpostu batzuen suntsiketa moteldu ahal izan duten arren, horrek ez du esan nahi EREak edo kaleratzeak egon ez direnik. Azken hilabeteetan enplegua suntsitzen ari da Hego Euskal Herriko hainbat enpresetan. Lan Harremanen Kontseiluaren arabera, 2020an 104 espediente izan dira, 2.154 pertsonari eragiten dietenak, horietako asko Aiaraldeko eskualdean. Sarreran adierazitakoaren ildotik, enpresen berregituraketaren adibide da eskualde hau, zeina oso kolpatua izan da enpleguaren suntsiketarengatik. Enpresa askok, urteetan irabaziak lortu dituzten arren, EREak jakinarazi eta aplikatu dituzte. Tubacex, M. Torres, Aernnova eta abarren kasua da, baina ez da soilik industriari eragiten dion fenomeno; hirugarren sektorean ere digitalizazio-

planetarako prestatzen ari dira, eta plan horiek enplegua suntsitzea eta lan-baldintzak okertzea ekarriko dute, Inditexen kasuan bezala.

Dena den, errealitateak erakusten digu ERTEen tresna baliagarria izaten ari dela enpleguaren suntsipena handiagoa izan ez dadin. Hala ere, epe laburrean gerta daitekeena da horietako asko ERE bihurtzea azkenean, eta, ondorioz, langabetuen kopuruak gora egitea. Hirugarren luzapena sinatuta, neurria maiatzaren 31ra arte luzatuko da printzipioz. Patronala dagoeneko kokatu da gaiaren inguruan, eta behin baino gehiagotan adierazi du langileak kaleratzea debekatzen duen neurriaren aurka dagoela.

ELAk uste du beharrezkoa dela enplegu-erregulazioko espedienteak luzatzea, baldin eta kaleratzeko debekua indartzen bada. Baina ez da beharrezko den neurri bakarra; izan ere, lan-erreforma ez indargabetzeak, pairatzen jarraitzen dugun krisi ekonomikoarekin batera, ondorio kaltegarriak izan ditzake langileengan. Horregatik, inoiz baino beharrezkoagoa da gai horri heldzea eta herritarren baldintza materialak okertu dituzten ondoz ondoko erreformekin amaitzea. Ezinbestekoa da agenda soziala indartzea, langile-klasearen pobretze orokorra saihesteko.

PUNTAKO GAIA

Europako funtsak Hego Euskal Herrian

1. Zer da eta zer suposatzen du Next Generation EU programak?

NGEU programa Europako Batzordeak sustatutako funtsa da. COVID-19ak eragindako krisiari aurre egiten saiatzeko. Europar Batasunaren (EB) 2021-2027 urteetarako aurrekontuaren barruan dago; beraz, aldi baterako funtsa da, eta 750.000 milioi euroko zuzkidura du. Horietatik 390.000 milioi diru-laguntza izango dira, eta 360.000 mailegu. NGEUren programa nagusia Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa (SEM) izenekoa da, eta funtsen %90a suposatzen du. Honen barruan kokatzen dira transferentzia gehienak. Europako funtsei buruz entzuten dugunean, programa honetaz ari gara.

ELAtik behin eta berriz ohartarazi dugu (*ikusi <https://labur.eus/NGEU>*) funts horiek argi eta garbi baldintzatuta datozela: finantzaketaren truke, herrialdeek zenbait erreforma egin beharko dituzte Europako Batzordearen gomendioetan oinarrituta. Espainiako estatuaren kasuan, besteak beste, pentsio-sistemaren erreforma edo lan-erreforma izango lirakeke, bi kasuetan eskubide sozialak murrizteko bidean. Gainera, funtsak estatuen benetako beharrak (zerbitzu publikoak, zaintzak, gizarte-prestazioak) estaltzera bideratu ordez, EBrentzat estrategikoak diren arloetara bideratu beharko dira. Hala nola, digitalizaziora edo trantsizio ekologikoa delakora. Diru publikoaren kopuru handi bat korporazio pribatu handien proiektuetara bideratzeko neurria egindako programa da.

2. Zer dago milioi zaparrada honen atzean?

Diru zaparrada horretatik 140.000 milioi euro dagozkio Espainiar Estatuari. Horietatik 72.000 milioi transferentzia gisa etorriko dira (gehienak MRRtik) eta 68.000 milioi mailegu gisa. Funtsak esleitzeko irizpideak biztanleria, azken urteetako BPG maila eta 2020 eta 2021 urteetan BPGren beherakada edo langabezia-tasa dira. Hauei erreparatu, Espainiak transferentzietan zenbateko handiagoa jasotzea,

haren hazkunde-aurreikuspenak espero zirenak baino txikiagoak izango baitira. Irizpide horiek oinarri hartuta, ikus dezakegu finantzaketa gehien jasoko duten herrialdeak 2008ko krisian gehien sufritu zutenak direla. Izan ere, Espainiaren, Italiaren, Greziaren, Portugalen eta Irlandaren artean programa horren transferentzien %50 jasoko dute, eta herrialde "frugal" deritzenak (Herbehereak, Danimarka, Austria, Finlandia eta Suedia) %5,17 baino ez dute jasoko. Honek argi uzten du herrialde hauek hegoaldeko herrialdeengan ezarriko duten kontrola.

Gainera, aztertu beharra dago estatuak transferentzia gisa jasoko duten kopurua egiazkoa den edo ez. Europako urte-anitzeko aurrekontua (normalean 7 urterako da) baliabide propioekin finantzatzen da, herrialde bakoitzak bere aberastasunaren arabera ematen dituen baliabide propioen bidez, EBtik kanpoko herrialdeetako inportazioen aduana-eskubideen bidez eta herrialdeetako BEZaren bilketaren zati baten bidez. Europaren aldetik herrialdeek jasotzen dituzten funtsak norabide bakarrekoak diren ustea faltsua da. Estatu espainiarraren kasuan, urte-anitzeko azken aurrekontuaren etapan (2014-2020) jaso dituenak baino 4.000 milioi euro gehiago eman ditu. Espainiar estatuak EBren aurrekontuaren %10a inguruko ekarpena egiten du.

Datozen urteetarako urte-anitzeko aurrekontuari dagokionez (2021-2027), bi partida desberdin daude. Alde batetik, aurrekontu arrunta, gutxi gorabehera 1,1 bilioi eurokoa eta aztertu berri ditugun irizpideen arabera finantzatuko dena. Bestetik Next Generation EU funtsa, 750.000 milioi eurokoa eta EBk zor bateratua jaulkiz finantzatuko dena. Horrek aldatuta dakar 2008ko krisiarekin alderatuta; izan ere, herrialdeak banaka finantzatu behar ziren, eta interes gehiago ordaindu behar zituzten arrisku-prima handiagoa zutenek. Orain, estatu batzuek beren gain hartu behar dituzten interesen kopurua murriztu egiten da, dela interesek gutxienekoetan jarraitzen dutelako, dela Europako zor bateratuaren balorazioak arriskurik ez dakarrelako.

750.000 milioi horien jaulkipena nola finantzatuko den ez dago hain argi, zeintzuk 2058 baino lehen itzuli beharko diren. Zor horri aurre egiteko hainbat zerga sortzea proposatu da, hala nola, plastikoaren gaineko zerga, Tobin tasa edo Google tasa, baina oraindik

zehaztu gabe daude eta diru-bilketaren aurreikuspenak kontuan izanda ez lirateke nahikoak izango. Europako Banku Zentralak argiago utzi zuen *The fiscal implications of the EU's recovery package* txostenean. Dokumentua argi uzten zuen, alde batetik, maileguak estatu kide onuradunek itzuliko zituztela eta, beste aldetik, diru-laguntzen itzulketak errenta nazional gordinean eta EBren baliabide propio berrietan oinarritutako ekarpenekin (aurrez deskribatutako tributuak) estaliko zirela.

Hori dela eta, txostenak erakusten zuen Espainiako estatuak 42.000 milioi euroko saldo garbia lortuko zuela NGEUtik, ez 72.000 milioi euro, hasieran uzten zen bezala. Laburbilduz, Espainiako Estatuari 100.000 milioi euro inguru itzultzea dagokio, jasotako funtsen %70. Milioien euria ez da hasieran uste bezain handia izango.

3. Behin-betiko, funtsak baldintzatuta egongo dira

Otsailaren 18an Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean 2021/241 araudia argitaratu zen, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duena. Behin betiko araua da, eta funtsak eskuratzea erabakitzen duten herrialde guztiek arau horretara mugatu beharko dute. ELAtik etengabe ohartarazi dugu funts horiek jasotzearen baldintzazkotasuna, araudiaren aurreko bertsioetan argi eta garbi zehazten zena. Behin betiko bertsioak, baldintzazkotasuna existitzen ez dela edo diluitua izan dela dioten ahots batzuk egon arren, azken hilabeteetan adierazi duguna berresten du.

Araudi korapilatsua da, Batasunaren barruan izan ohi den bezala, baina beste arau eta erreglamendu batzuen erreferentzien atzean, Europako Batzordeak estatu kideek aurkezten dituzten planetan argi eta garbi esku hartzen duela ezkututzen du:

- Europako Seihilekoaren esparrua: estatu kideek beren plan nazionalen barruan aurkezten dituzten erreformek Europako Seihilekoari lotuta egon behar dute nahitaez. Gobernantza ekonomikoko mekanismo horretan, herrialdeetako aurrekontu-politikak eta desoreka makroekonomikoak koordinatzen dira, eta egiturazko erreforma espezifikoak gomendatzen zaizkie EBko egonkortasun- eta hazkunde-irizpideak betetzen ez dituzten estatuei. Askotan ohartarazi dugu Espainiako Estatuarentzako gomendioak pentsioen erreformen 2012ko lan-erreforma ez indargabetzearen edo epe ertaineko doikuntza makroekonomiko ildotik doazela. Horrek

guztiak gizarte-eskubideen murrizketak ekarriko ditu. Gainera, badirudi araudiak inbertsioak baino gehiago lehenesten dituela erreformak plan nazionalak aurkezterakoan. Eta erreforma horiek, Erreglamenduaren 17. eta 18. artikuluetan deskribatzen den bezala, koherenteak izan behar dute herrialde bakoitzak Europako seihilekoaren esparruan dituen erronka eta lehentasun espezifikoekin.

- Funtsak kentzea: araudiaren 10. artikulua behar bezain zehatza da zentzu horretan. Europako Kontseiluak *"konpromiso edo ordainketen zati bat edo ordainketa osoa etetea proposa dezake, baldin eta estatu kide batek bere gehiegizko defizita zuzentzeko neurri eraginkorrik hartu ez badu"*. Defizit hori erreformak eta inbertsioak aurkezteko orduan EKren eskakizunak ez betetzearekin lotuta dago. Hala ere, artikulua horren 2.d) puntuan honako hau zehazten da: *"Batzordeak Kontseiluari proposatu ahal izango dio konpromisoak edo ordainketak guztiz edo partzialki etetea, Kontseiluak erabakitzen duenean estatu kide batek ez duela betetzen 472/2013 (EB) Araudiko 7. artikuluan aipatzen den doikuntza makroekonomikoaren programa"*. Bada, 7. artikulua hori da, hain zuzen ere, Grezia bezalako herrialdeek 2008ko finantzaketa-programa jaso zutenean izan zuten doikuntza makroekonomikoaren programa. 7. artikulua arabera, *"Europako Batzordeak, Europako Banku Zentralarekin eta Nazioarteko Diru Funtzarekin koordinatuta, estatu kide batek bere doikuntza makroekonomikoko programa aplikatzean egindako aurrerapenen jarraipena egingo du"*. Hau da, araudian ezkutututa badago ere, Troika NGEU funtsetan dago.
- Erreformak bi garaitan egitea: lehenik, estatu kideek finantzazioa transferentzia moduan eskatuko dute, eta 2023-2026 bitartean maileguak eskatuko dituzte. 14. artikulua arabera, bi finantzabideetako edozein eskatzen den bakoitzean, erreformak aurkeztu beharko dira. Horrek eragin dezake, adibidez, pentsioen erreforma hasieratik osorik ez ikustea eta pixkanaka egitea finantzaketa-bide desberdinak eskatzen diren bitartean.
- Funtsen xedea: funtsen xedearen ehunekoak mantendu egiten dira, eta planaren %37 klimaren helburura eta %20 helburu digitalera bideratu behar dira. Hau da, estatuak ezin dute inbertitu beraiek lehentasunezkoztat jotzen duten horretan; aitzitik, EBko proiektu estrategikoetan inbertitu beharko dute.
- 27. artikulua arabera, estatu kideek urtean bitan eman beharko dute beren planen aurrerapenaren

berri Europako Sei hilekoaren esparruan, eta hori kontrol-elementu argia da.

- Kalte nabarmenik ez eragiteko printzipioa: 18. artikuluan zehazten da erreformak eta inbertsioak gauzatzeko neurrietako batek ere ez duela kalte nabarmenik eragin behar ingurumenari dagokionez. Gezurra dirudi printzipio hori sartzeak, ingurumen-inpaktu negatiboa ahalbidetzen baitu, trantsizio ekologikoaren irudia saldu nahi den bitartean.

Hori da Europako funtsen behin-betiko esparru orokorra, eta urrian argitaratutakoaren baieztapen bat da. Esparru horren barruan aurkeztu beharko dituzte estatu kideek beren erreforma- eta inbertsio planak.

4. Funtsen erabaki-eremua Espainiako estatuan

Hasieratik, Europako Batzordeak argi utzi du estatu kideak arduratuko direla NGEU programaren baliabideak kudeatzeaz. Espainiaren kasuan, kudeaketa hori duela aste gutxi onartutako 36/2020 Errege Lege Dekretuaren bidez gauzatu da. Dekretua, bide batez, CEOE patronalak egindako proposamenaren edukiaren kopia bat da (Cuatrecasas, Garrigués, Uría-Menéndez eta PwC enpresek egina).

Dekretuan jorratutako gaien artean, honako hauek nabarmentzen dira:

- Egitura erabat zentralizatu ezarri da, zuzendaritza eta koordinazioa gobernuko presidentea buru duen batzorde baten esku utziz. Batzorde Tekniko bat ere sortu da, batzordeari laguntza teknikoa emateaz arduratuko dena. Azken mailan, Konferentzia Sektoriala dago, Gobernuaren eta autonomia-erkidegoen arteko lankidetzaren organo gisa. Azken organo hori Pedro Azpiazu sailburuak berak kritikatu zuen, argudiatuz baterako gobernantzak oztopolasterketa bat zirudiela eta Sanchezen gobernuren diseinua aldebakarrekota eta inposatzailea dela. Horrek argi uzten du autonomia-erkidegoek edo erakunde txikiak erabakiak hartzeko ahalmen txikia izango dutela planak aurkezterakoan.
- Parte-hartze sozialerako foro bat ere eratu da, elkarrizketa soziala bultzatzeko. Orain arte, elkarrizketa sozialaren esparruan parte hartzen duten sindikatuek, hala nola UGTk eta CCOO, foro informatiboa baino ez dela adierazi dute.

- Lankidetzaren publiko-privatuzko modu berriak ezarri dira: PETE gazteleraz (Ekonomia Berreskuratu eta Eraldatzeko Proiektu Estrategikoak). Aurrez ikusi dugunez, funts horien onuradunak enpresa handiak izango lirateke neurri handi batean. Tresna hori da diru publikoaren proiektu pribatuetara transferitzeko legezko oinarria. Gainera, PERTEak tresna iraunkorrak izatea nahi da, eta ez NGEU funtsak kudeatzeko bakarrik.
- Dekretuak laguntzen izapidetze-prozesua arintzea eta arau- eta administrazio-oztopoak murriztea ahalbidetzen du. Bereziki kezagarria da trantsizio ekologikoa egin nahi duten funtsak lortzeko ingurumen-eskakizunak murriztea.

Dekretu hori Kongresuko osoko bilkurak baliozkotu zuen urtarrilaren amaieran, PSOEren, Unidas-Podemosen, EAJren eta EH Bilduren aldeko botoekin, besteak beste. Hau da, Eusko Legebiltzarreko eta Nafarroako talde politikoetatik, PPK, Ciudadanosek eta Navarra Sumak bakarrik bozkatu dute dekretu hori baliozkotzearen aurka, edukietan baino, estrategia politikoa oinarrituta.

ELArentzat albiste txarra da ezker politikoa dekretu hau onartzen ikustea, eztabaidaren muina funts horiek dakartzaten pentsioen, zerbitzu publikoen eta lan-eskubideen murrizketak aipatu eta kokatu beharrean. Beharrezkoa da funtsen eztabaida horiek izango dituzten ondorio antisozialetan kokatzea, eta, horretarako, politika horiek azaldu, argitu eta borrokatu behar dira. Are gehiago, Jose Luis Escrivá Gizarteratze, Gizarte Segurantzaren eta Migrazioetako ministroak elkarrizketa batean onartu zuenez, "Pentsioen erreforma funtsezkoa da EBko funtsak eskuratzeko".

5. NGEU funtsak Hego Euskal Herrian

Ikusi berri dugunez, funtsen kudeaketa gobernu zentralari dagokio soilik, eta Europako Batzordeak du azken hitza aurkezten diren planen finantzaketa onartu, ebaluatu eta erretiratzeko orduan. Ikusi dugu, halaber, autonomia-erkidegoek parte hartzen duten Konferentzia Sektoriala oso urrun dagoela benetako gobernantzaren eredu batetik, eta bertan ezer gutxi eragingo dela. Hala ere, Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak Europako funtsak eskuratzeko proposamenak aurkeztu dituzte. Bi proposamenek azken hilabeteotan salatzen aritu garena erakusten dute: dirua ez da zerbitzu publikoetara, gizarte-prestazioetara edo zaintza-sistema hobetzera bideratuko. Europako funtsak enpresa

handien proiektu pribatuak, azpiegitura handiak eta krisi honetara ekarri gaituen eredu neoliberalak islatzen duten proiektuak finantzatzeko erabiliko dira.

EUSKADI NEXT:

EAEko ekonomiak BPGaren %9,5eko beherakadarekin amaitu zuen 2020. urtea, hau da, 7.500 milioi euro inguruko beherakadarekin. Egoera horretan eta NGEUtik Espainiako Estatuari zegozkion 140.000 milioi euroen aurrean, Eusko Jaurlaritzak proiektuen lehen zirriborro bat egin zuen bere pastelaren zatia eskuratzeko nahiarekin. 10.000 milioi euro pasatzeko plan batekin, funtsen erdia AHTra eta Petronor eta Iberdrolaren proiektuetara bideratu nahi zuen. Zirriborroa ez da behin-betikoa izan, baina asmoen adierazpen argia zen.

Abenduaren amaieran, Jaurlaritzak Euskadi Next programa aurkeztu zuen. 13.135 milioi euroko inbertsio-programa da, datozen 6 urteetan Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoak 5.702,6 milioi euro jasotzea espero duena (950 milioi euro urtean). Zifrak alderatuz gero, ikus dezakegu datozen 7 urteetarako Europako funtsak txikiagoak direla BPGak 2020an izan duen beherakada baino. Horrek argi uzten digu funtsak ez direla nahikoak COVID-19aren krisiari aurre egiteko.

Azkenean aurkeztu den Euskadi Next programak literaturarekin ezkutatu nahi izan du aurkeztutako lehen zerrendaren intenzionalitate argia. Testu artikulatuagoa aurkeztu da, hobeto aurkeztua, baina hasieran erakutsitako asmoen funtsa aldatu gabe. Literatura-ahalegina gorabehera, funtsezko alderdiak zehaztetik urrun daude:

- Lehenengoa, Eusko Jaurlaritzak krisiari aurre egiteko planteatu dituen programei buruzkoa da. Izan ere, azaroan Berpiztu programari argi berdea eman zitzaion, 13.250 milioi euroko zuzkidurarekin. Planaren ardatzak, zenbatekoa eta Europako funtsekin lerrokatuta egotea kontuan hartuta, pentsa dezakegu Berpiztu eta Euskadi Next modu ezberdinean saldatutako programa bera direla, propaganda-ekitaldi argi batean.
- Euskadi Next PERTE handi bat da. Lehen ikusi dugun bezala, PERTEak lankidetzat publiko-pribatuaren legezko figura dira. Dokumentuak berak zehazten duenez, figura horiek aukera emango dute partzuergoak edo taldeak sortzeko, arlo publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzarako tresna gisa, garrantzi ekonomiko handiko proiektu

handiak gauzatzeko". Europako funtsak euskal eta ez euskal enpresa handien makro-proiektuetara bideratzeko beharrezko esparrua dira PERTEak. Horren erakusgarri dira Euskadi Nexten aurkeztutako plan nagusiak, hala nola Hidrogenoaren Korridorea Petronor, Repsol eta Sener buru dituela, edo Basquevolt Gigafactory, Iberdrola, Petronor, Enagas, MCC edo Irizar.

- Beste zalantza bat sortzen da Euskadi Next-en finantzaketaren inguruan. Europako funtsetatik 5.702,6 milioi euro eskuratzeko aurreikusten da, programa osoa 13.135 milioi euro delarik. Baina, nola finantzatu dira beste 7.432 milioi euroak? Txostenaren arabera, eragile publikoen eta pribatuen palanka-efektu finantzarioaren bidez. Hau da, Eusko Jaurlaritzak zorpetu egin nahi du plan batzuk osorik finantzatu ahal izateko, enpresek zenbateko ekarpena egingo duten edo diru pixka bat jarriko duten jakin gabe.
- Beste kontu garrantzitsu bat da jakitea Europako funtsak jasotzen ez dituzten proiektuak gauzatu diren ala ez. Unai Rementeriak berak baldintzatzen zuen metroa Galdakaora iristea (Euskadi Next-en proposatutako inbertsioetako bat da), Europatik dirua iristen bazen. Gauza bera gerta liteke programan proposatutako plan askorekin. Eusko Jaurlaritzak estrategikotzat jotzen dituen proiektuak lehenetsiko dira, eta beste batzuk kajoian gordeko dira.
- Europako Batzordearen baldintzetako bat agente ezberdinen parte hartzea zen erreforma- eta inbertsio-planak garatzerako orduan. Euskadi Next-en kasuan, elkarrizketa hori ez da gertatu, erakunde publikoetatik eta enpresetatik harago. Azken horien neurria egindako plan bat da emaitza, trantsizio ekonomiko eta ekologiko bat ekarri beharrean, sektore estrategikoak esku gutxiagotan biltzen dituen eredu neoliberallean sakontzen duena.

NEXT GENERATION EU NAFARROAN:

2020. urtea BPGaren %8,3ko beherakadarekin amaitu zen Nafarroan, hau da, aurreko urtean baino 1.832 milioi euro gutxiagorekin. Ideia bat egiteko, Nafarroako Gobernuak Europako funtsak eskuratzeko egin duen proposamena 1.534 milioi euro da datozen 6 urteetarako, hau da, batez beste 255,7 milioi euro urtean. BPGaren beherakada, 2020an, Gobernuak datozen 6 urteetan lortu nahi duen Europako funtsen kopurua baino handiagoa da.

Proposamenak 49 proiektu ditu, eta horietako asko urteak daramatzate (hamarkada batzuk) gobernu ezberdinen agendan. Horrek agerian uzten du Nafarroako Gobernuaren planek ez dakartela, inolaz ere, eredia aldatzea, eta aurkeztutako proposamenak hala erakusten du:

- Nafarroaren kasuan ere, etengabeko propaganda kanpaina bat ikusi ahal izan dugu, COVID-19aren krisiari aurre egiteko programekin. Nafarroa Suspertu eta NGEUko funtsak bi programa independente gisa saldu nahi dira, baina badirudi plan bakarra dagoela eta, gainera, Europatik jasotzen diren funtsen araberakoa izango dela.
- Esan daiteke Nafarroako Gobernuak aurkeztutako 49 proiektuetatik finantziario handiena behar duten proiektuek urte edo hamarkada asko daramatzatela agendan. Beraz, plan hori eraldaketa edo erresilientzia gisa definitzea txantxetakoia izan liteke, gutxienez. Horren adibide da Nafarroako Ubidearen bigarren fasea (220,9 milioi €). Proiektu hori 1999an hasi zen, eta "trantsizio ekologiko" gisa saldu nahi da, ingurumenaren aldetik jasanezina den azpiegitura denean eta ura erabiltzeko eredu jasanezin bat bilatzen duenean.
- NGEU funtsak eskuratu nahi dira AHTren bi proiektuekin, eraldaketa ekologikoko eta erresilientzia proiektu gisa. Europar Batasunak berak behin eta berriz kritikatu du AHTa, gainkostuagatik eta ingurumenean duen eragin negatiboagatik. EAEren kasuan, AHTk pisu handia zuen lehen zirriborroan, baina erretiratu egin zuten behin-betiko proposamenean.
- Zaintzak edo euskara bezalako gaiak garrantzi txikia dute planean. Nafarroako Gobernuak 53,8 milioi euroko aurrekontua egin du 2021etik 2026ra bitartean (hau da, urtean 9 milioi baino gutxiago) iraupen luzeko zaintza-zentroetan inbertsioak egiteko, energetikoki eraginkorrak eta eskuragarriak izan daitezkeen, profesional berriak prestatzeko eta telelaguntza-sistema bat garatzeko. Euskarari dagokionez, 3 urtetan 4,5 milioi euro bideratu nahi dira Euskararen II. Plan Estrategikoa garatzeko, eta, aldi berean, beste neurri batzuk hartzen dira, hala nola, Euskararen Dekretua bertan behera uztearen aurkako errekurtsorik ez jartzea, edo euskarak LEPetan ere punturik ez ematea.
- EAEren kasuan bezala, Nafarroan erabateko iluntasuna egon da funtsen kudeaketan. Urtarrilaren

amaierara arte ez da aurkeztu Nafarroako zerbitzu publikoetan dauden egiturazko defizitak finantzatzeko balio ez duten proiektuak zerrendatzen dituen dokumentua. Gainera, proiektuak aurkezteko Nafarroako Gobernuak aurkeztutako dokumentuak ez du betetzen gizarte demokratiko bati eska dakioken gutxieneko informazioa eta gardentasuna, proiektuak paragrafo gutxitan zerrendatzeaz gain, ez baitago inolako informaziorik. Informazio falta eta opakutasuna beti daude propagandara bideratuta eztabaida irekira baino gehiago. Gobernuak emandakoarekin, ezin da jakin nola eta zergatik aukeratu diren proiektu horiek, nola garatuko diren, zein enpresak garatuko dituen, etab.

6. Funtsen alternatibak badaude

Europako funtsak laguntza handia izango lirateke estatu kideentzat, baldin eta horiek murrizketen mende ez badaude eta COVID-19ak eragindako krisiak gehien kaltetu dituen eremuetara bideratu badaitezke. Hala ere, uste dugu baldintzapekotasuna ezinbesteko bidesaria izango dela NGEUko funtsak eskuratzeko aukera duten herrialdeentzat. Era berean, 2020an, diru-bilketak nabarmen egin du behera, eta zor publikoa maila gorenetan dago. Horregatik, baliabide propioak handitzeko beste modu batzuk aurkitu behar dira, pandemiak sortutako beharrei aurre egin ahal izateko.

Alternatiba nagusia erreforma fiskala da. Azken asteetan, Hego Euskal Herrian dugun presio fiskalaren inguruko albisteak publikatu dira, Espainiako Estatu txikienetako bat izanik. ELAk duela aste gutxi salatu zuenez, euskal enpresa nagusietako 22k sozietateen gaineko zergan %7,6ko zerga ordaindu zuten 2019an, tasa orokorra %24koa zen bitartean (ikusi <https://labur.eus/ELA-IS>). Izan ere, enpresa askok ez zuten euro bat ere ordaindu etekin handiak izan arren. Aberastasuna modu bidezkoagoan banatzeko tarte handia da.

Europako Batzordeak estatu kideen 2019ko presio fiskalari buruzko datuak argitaratu berri ditu. Zerga bidez bildutakoaren batez besteko pisua, BPGari dagokionez, % 40,1ekoa izan zen Eurogunean. Hala ere, HEHko presio fiskala %32,28koa izan zen (%32,55ekoa EAEen eta %31,31koa Nafarroan). Horrek esan nahi du Europako batez bestekoaren presio fiskal bera izango bagenu, 5.998 milioi euro gehiago bilduko liratekeela EAEen eta 1.920 gehiago Nafarroan urte horretan bertan. Hau da, Europako funtsek sei urtetan utziko zutena lortuko genuke urtebetean. Gainera, baliabide iraunkorrak izango lirateke, eta ez NGEU bezalako aldi baterako programa antizikliko bat.

Azterketa hori ez da puntuala 2019. urtean, desberdintasun horiek estrukturalak dira. Eta EBko

herrialde nagusiekin alderatuz gero, bilketa askoz ere handiagoa izango litzateke.

	Espainiar estatua	EU-27	Alemania	Frantzia	Italia
Presio fiskala %	%34,80	%40,10	%40,30	%45,50	%42,30
Diferentzia presio fiskalean HEHrekiko	%2,52	%7,82	%8,02	%13,22	%10,02
Bilketa handiagoa HEHn presio fiskal horrekin	2.552,67 €	7.921,39 €	8.123,99 €	13.391,41 €	10.149,92 €

Iturriak: Europar Batasuneko Argitalpenen Bulegoa, Gizarte-Segurantzaren Diruzaintza Orokorra, Nafarroako Gobernua, Nastat, Eustat, Eusko Jaurlaritza

7. Ondorioak

ELA sindikatutik hilabeteak daramatzagu ohartarazten Europako funtsak pentsioen erreformaren eta lan erreformaren murrizketen eskutik datozela. Gainera, funts horiek enpresa handien proiektu pribatuei mesede egiteko sortu dira; izan ere, enpresa horiek bakarrik dute inbertsio handiak egiteko gaitasuna digitalizazioan edo trantsizio ekologiko delakoan.

Hala ere, ikusi ahal izan dugu Europar Batasunean aurrekaririk ez duen milioi-zaparrada hori ez dela hasieran espero zen adinakoa. EBZren arabera, Espainiako Estatuak baliabide propioen bidez jasoko dituen funtsen %70 itzuli beharko ditu, eta, azkenean, transferentzia garbiak 42.000 milioi eurokoak izango dira.

Hilabeteak daramatzagu funts horien baldintzazkotasunaz ohartarazten, eta hala berretsi du Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa (funtsen %90) arautuko duen behin-betiko araudiak. Espainiako Estatuak behartuta egongo da pentsio-sisteman erreformak egitera, lan-erreforma ez indargabetzera edo defizit publikoa epe ertainean kontrolatzeko neurriak hartzera, funts horiek jaso nahi baditu.

HEHko eremuari dagokionez, 36/2020 Errege Lege Dekretuak Europako funtsen kudeaketa gehiago zentralizatu du, eta finantzaketa hori lortu nahi duten planen zuzendaritza eta erabakia gobernu zentralaren esku utzi ditu. Autonomia-erkidegoek beren planak proposa ditzakete, baina erabakian eragiteko duten gaitasuna desagertu egin da. Dekretu honek beharrezko lege-esparrua sortu du denbora honetan guztian

ohartarazi dugun guztia garatu ahal izateko. PERTE-ak sortzea tresna ezin hobea da diru publikoaren kopuru handiak enpresa handien proiektu pribatuetara transferitzeko.

Funtsen kudeaketa zentralizatuta dagoen arren, Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak Suspertze- eta erresilientzia-planak aurkeztu dituzte. Plan horiek ez dute gardentasunik izan, ez eta beste eragile batzuen parte-hartzerik ere, eta orain arte deskribatutako guztia errepikatzen dute. Dirua ez da zerbitzu publikoak indartzeko erabiliko. Iberdrola, Petronor, Sener, MCC edo Repsolen proiektuak finantzatzeko, azpiegitura handietarako eta krisi honetara ekarri gaituen eredu neoliberalak errepikatzen duten proiektuetarako erabiliko da.

Europako funtsen esparrutik kanpo badira alternatiba errealistak eta lorgarriak. Eta alternatiba nagusia erreforma fiskal justuan datza, aberastasuna hobeto banatu ahal izateko. Europako presio fiskalaren batez bestekotik oso urrun gaude. Maila horretan egongo bagina, NGEU programa bat izango genuke HEHn urtero, zerbitzu publikoak indartzeko eta benetako trantsizio digital eta ekologikoa egiteko behar adina baliabide izango dituen.

Aurten aukera dugu sistema fiskala birmoldatzeko, baliabide propio gehiago izateko eta gastu publikoa handitzeko besteren baliabideen edo zorraren mende ez egoteko. Are gehiago funts horiek langileriaren eskubideak murriztu ditzaketenean edo epe ertain eta luzerako gastu-araua bezalako neurriak hartzea eragin dezaketenean.

